

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**LEHENDAKARITZA**


*Azerlan eta Lege Araubide  
Zuzendaritza  
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

**PRESIDENCIA**

*Dirección de Estudios y  
Régimen Jurídico  
Gabinete de Prospección Sociológica*

**GAZTEEN ARGAZKIAK 8**  
**RETRATOS DE JUVENTUD 8**

**2005eko urria**  
**Octubre 2005**



[http://www.euskadi.net/estudios\\_socilogicos](http://www.euskadi.net/estudios_socilogicos)



# Aurkibidea / Índice

<b>SARRERA / INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>1</b>	<b>E – GAZTEEN JARRERA POLITIKOAK / ACTITUDES POLÍTICAS DE LAS Y LOS JÓVENES...</b>	<b>67</b>
<b>LABURPENA / SÍNTESIS</b> .....	<b>5</b>	• <b>Politikarekiko interesa / Interés por la política</b> .....	68
<b>A – GAZTEAK ETA EGUNEROKO BIZITZA / LA JUVENTUD Y SU VIDA COTIDIANA</b> .....	<b>15</b>	• <b>Politikarekiko sentimenduak / Sentimientos hacia la política</b> .....	70
• <b>Norberaren egoeraren balorazioa / Valoración de la situación personal</b> .....	16	• <b>Politikari buruzko iritzia / Opiniones sobre la política</b> .....	72
• <b>Norberaren arazoak / Problemas personales</b> .....	18	• <b>Politikaren presentzia eguneroko bizitzan / Presencia de la política en la vida cotidiana</b> .....	74
• <b>Erreferenteak / Referentes</b> .....	21	• <b>Familia, sozializazio politikorako eragile / La familia como agente de socialización política</b> .....	76
<b>B – GAZTEAK ETA HEZKUNTZA / LAS Y LOS JÓVENES Y LA EDUCACIÓN</b> .....	<b>23</b>	• <b>Alderdi politiko batekiko hurbiltasuna / Proximidad a algún partido político</b> .....	78
• <b>Derrigorrezko hezkuntzaren balorazioa / Valoración de la enseñanza obligatoria</b> .....	24	• <b>Alderdi politikoei buruzko iritzia / Opiniones sobre los partidos políticos</b> .....	80
• <b>Hizkuntzen ikasketa / Aprendizaje de idiomas</b> .....	26	• <b>Begikotasun politikoak / Simpatías políticas</b> .....	82
• <b>Lanbide Heziketaren balorazioa / Valoración de la Formación Profesional</b> .....	28	• <b>Ezker-eskuin ardatza / Eje izquierda-derecha</b> .....	84
• <b>Lanbide Heziketa edo Unibertsitatea / Formación Profesional o Universidad</b> .....	30	• <b>Euskal herritar-espainiar ardatza / Eje vasco-español</b> .....	86
<b>C – GAZTEAK ETA KIROLA / LOS Y LAS JÓVENES Y EL DEPORTE</b> .....	<b>33</b>	• <b>Buruzagi politikoaren balorazioa / Valoración de líderes políticos</b> .....	88
• <b>Kirolzaletasuna / Afición al deporte</b> .....	34	• <b>Nortasun sentimendua / Sentimiento de pertenencia</b> .....	90
• <b>Kirolarekiko interesa eta praktika / Interés y práctica deportiva</b> .....	36	• <b>Independentzia / Independencia</b> .....	92
• <b>Kirolgileen kopurua / Practicantes de deporte</b> .....	38	• <b>Informazio politikoaren jarraipena / Seguimiento de la información política</b> .....	94
• <b>Egiten diren kirolak / Deportes practicados</b> .....	40	• <b>Komunikabideekiko konfiantza / Confianza en los medios de comunicación</b> .....	96
• <b>Kirola egiteko arrazoiak / Motivos para practicar deporte</b> .....	42	• <b>Erakundeekiko konfiantza / Confianza en instituciones</b> .....	98
• <b>Kirola ez egiteko arrazoiak / Motivos para no practicar deporte</b> .....	44	<b>F – EGOERAREN BALORAZIOA / VALORACIÓN DE LA SITUACIÓN</b> .....	<b>101</b>
<b>D – GAZTEAK ETA IRAKURKETA / LOS Y LAS JÓVENES Y LA LECTURA</b> .....	<b>47</b>	• <b>Euskadiko eta Estatuko egoera orokorraren balorazioa / Valoración de la situación general del País Vasco y del Estado</b> .....	102
• <b>Irakurketarekiko zaletasuna / Gusto por la lectura</b> .....	48	• <b>Euskadiko eta Estatuko egoera politikoaren balorazioa / Situación política del País Vasco y del Estado</b> .....	104
• <b>Irakurketa maiztasuna / Frecuencia de lectura</b> .....	50	• <b>Euskadiko eta Estatuko egoera ekonomikoa / Situación económica del País Vasco y del Estado</b> .....	107
• <b>Liburuen irakurketa maiztasuna / Frecuencia de lectura de libros</b> .....	52	• <b>Euskadiko eta Estatuko egoera soziala / Situación social del País Vasco y del Estado</b> .....	109
• <b>Azken urtean irakurritako liburuak / Libros leídos en el último año</b> .....	54	• <b>Demokraziaren funtzionamendua / Funcionamiento de la democracia</b> .....	111
• <b>Irakurritako liburu mota / Tipo de libros leídos</b> .....	56	• <b>Administrazioarekiko poztasun maila / Grado de satisfacción con la administración</b> .....	115
• <b>Irakurritako liburuen hizkuntza / Idioma de los libros leídos</b> .....	58	<b>ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA</b> .....	<b>119</b>
• <b>Egunkariaren irakurketa maiztasuna / Frecuencia de lectura de periódicos</b> .....	60		
• <b>Irakurritako egunkari mota / Tipo de periódicos leídos</b> .....	62		
• <b>Irakurritako egunkariaren hizkuntza / Idioma de los periódicos leídos</b> .....	64		



## **Sarrera / *Introducción***

## Helburuak / Objetivos

Txosten hau “Gazteen Argazkiak” seriearen zortzigarren emanaldia da, eta 2004an egindako lau azterketa soziologikotan 15 eta 29 urte bitarteko (bi adinak barne) Euskal Autonomia Erkidegoko gazteek emandako erantzunak gehitzearen emaitza da.

1996tik aurrerako antzeko datuak ditugunez, gaztediaren iritzien bilakaeraren ikuspegia ere jaso dugu. Era berean, eta konparazio ondorioetarako, 2004ko azterketa berberetan 30 urte eta gehiagoko pertsonak emandako erantzunak ere kontuan hartu ditugu, baita kasu zehatzen batetan Estatu osoko 15-29 urtetako gazteen datuak ere.

Hala, 2004an EAEko gazteak nolakoak diren jakiteaz gain, helduengandik eta Estatu osoko gazteengandik zertan ezberdintzen diren eta jarreretan izandako bilakaerak zeintzuk diren ere jakin nahi dugu. Deskribapeneko, bilakaerako eta konparaketako ikuspegi horrek gidatuko ditu honako orrialdeak.

Este informe constituye la octava entrega de la serie “Retratos de Juventud” y es fruto de la agregación de las respuestas de los jóvenes de 15 a 29 años (ambas edades inclusive) en cuatro estudios sociológicos realizados durante el año 2004.

Contar con datos similares desde 1996 permite aportar una visión evolutiva de las opiniones de la juventud. A su vez, a efectos comparativos, se han contemplado también los resultados globales de las personas de 30 y más años, procedentes de los mismos estudios del año 2004, y en algún caso concreto de las y los jóvenes de 15 a 29 años de la totalidad del Estado.

Así pues, el objetivo es conocer, no sólo cómo son las jóvenes y los jóvenes vascos en el año 2004, sino también en qué se diferencian de sus mayores, de las y los jóvenes de la totalidad del Estado, así como ver cómo van evolucionando sus posturas. Este enfoque, descriptivo, evolutivo y comparativo, es el que va a guiar las páginas que siguen.

## Informazio Iturria / Origen de la Información

Lan honetako emaitzak 2004an egindako lau ikerketatik eratorriak dira.

Ikerketa horietako galderetako batzuk Eusko Jaurlaritzako sail desberdinen eskaeren ondorioz landu dira, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin elkarlanean. Beste batzuk aldiz, aipaturiko Kabineteak berak bakarrik landu ditu (nahiz eta kasu batzuetan Estatu mailan egindako ikerketetan oinarritu).

Los resultados de este informe provienen de cuatro estudios realizados en el año 2004.

Algunas de las preguntas concretas realizadas en esos estudios se han elaborado a partir de peticiones de varios departamentos del Gobierno Vasco, en colaboración con el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco. En otros casos, las ha elaborado el propio Gabinete (si bien en algunos casos se ha apoyado en estudios realizados a nivel estatal).

## Kolektibokako azterketa / Análisis por colectivos

Aurkeztutako datuak biztanleria osotasunean hartuz ez ezik zenbait **aldagaien** arabera ere aztertu dira, ikertzen den gaia kontuan hartuz (aipatzekoa da sexua eta adin taldeak guztietan aztertu direla). Ondokoak dira aldagai horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.*
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa.*

Los datos presentados son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a distintas **variables** en función del tema a tratar, siendo las correspondientes a sexo y grupo de edad comunes a todos ellos. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.*
- Sexo: *varón, mujer.*

- Adin taldeak: 15-17, 18-21, 22-25, 26-29.
  - Lan egoera: *lanean, langabezian, ikasten, beste egoera batean.*
  - Ikasketa maila: *lehen mailakoak edo baxuagoak, bigarren mailakoak, goi-mailakoak.*
  - Norberak hautemandako klase soziala: *baxua, erdikoa, altua.*
  - Euskararen ezagutza: *ez (ez daki ezer esaten), pixka bat (zenbait hitz daki edo zerbait hitz egin dezake), bai (nahikoa ondo edo zuzen hitz egiten daki).*
  - Politikarekiko interesa: *batere interesik ez, ez interes handirik, interes apur bat, interes handia.*
  - Kirolzaletasuna: *batere ez, apur bat, oso.*
- Grupos de edad: 15-17, 18-21; 22-25, 26-29.
  - Ocupación principal: *trabajando, en paro, estudiando, otra situación.*
  - Nivel de estudios: *primarios o inferiores, secundarios, superiores.*
  - Clase social sentida: *baja, media, alta.*
  - Conocimiento de euskera: *no (no sabe nada), algo (sabe hablar algo o algunas palabras), sí (sabe hablar correctamente o bastante bien).*
  - Interés por la política: *nada interesado/a, no muy interesado/a, algo interesado/a, muy interesado/a.*
  - Afición al deporte: *nada, un poco, mucho.*





## Laburpena / *Síntesis*

**Oro har / En general****POZIK AL DAUDE GAZTEAK EUREN EGUNEROKO BIZITZAREKIN?, ZEINTZUK DIRA EUREN ARAZOAK?**

0 eta 10en arteko eskalan EAEko gazteek 6,8ko puntuazioa eman zioten 2004an gauzak zihoazkien moduari. Euren arazo pertsonalen artean ondokoak azpimarratzen ziren: etxebizitza (gazteen %41ek aipatuta) eta, ondoren, langabezia (%27k) eta arazo ekonomikoak eta gizarte ezberdintasunak (%26k). Atzetik datoz terrorismoa eta indarkeria (%12k), gatazka eta Euskadiko egoera politikoa (%10ek), hezkuntza (%7k), osasungintza, trafikoa, ingurumena, zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura, hizkuntza egoerarekin lotutako arazoak, gazteriaren arazoak (bakoitza %3k aipatuta), delinkuentzia eta herritarren segurtasun falta (%2k), inmigrazioa (%2k) eta drogak (%1ek).

**ZEINTZUK DIRA BEREN GIZARTE ERREFERENTERIK NAGUSIENAK?**

Gazteriak gehien miresten dituen pertsonak ondoko jardueretan dabilta: kirolean (%20), musikan (%18) edo zine eta telebistan (%12). Gutxiago dira ondoko jarduerekin erlazioatutakoak miresten dituztenak: politika (%8), literatura (%3), erlijioa (%1), jarduera humanitarioa edo giza arazoekin erlazioatutako jarduerak (%1), zientzia edo medikuntza (%1) edo pintura, eskultura eta abarren moduko arteak (%1).

**NOLAKO IRITZIAK DITUZTE HEZKUNTZARI BURUZ?**

EAEko gazte gehienek (%65ek) Euskadin eskaintzen den derrigorrezko hezkuntza ona dela uste dute (%4k, aldiz, txarra dela deritzote).

16 urterekin derrigorrezko hezkuntza bukatzen denean edozein gaztek gaztelaniaz zuzen hitz egiten jakin beharko lukela uste dute gazteek (%98k hain zuzen ere), %93k uste dute euskaraz zuzen hitz egin beharko lukela, %80k ingelesez eta %38k kanpoko beste hizkuntzan. Benetan gertatzen denari buruz galdetzen denean ehunekoak nabarmen jaisten dira: gazteen %77k uste dute derrigorrezko hezkuntza bukatzean neskak eta mutilak gai direla gaztelaniaz zuzen hitz egiteko, %48k uste dute euskaraz zuzen hitz egiteko gai direla eta bakarrik %17k uste dute gazteek ondo hitz egin dezaketela ingelesez.

Gazteriaren %67k Euskadin gazteei eskaintzen zaien Lanbide Heziketa ona dela uste du (%2k txarra dela deritzote eta %19k hala-holakoa dela diote), eta %72k uste dute ondo prestatzen dituela gazteak lan munduan sartzeko. Izatez, %60k uste dute errazagoa dela lana aurkitzea LHren modulua ikasiz, unibertsitateko karrera ikasiz baino; dena dela, gehiago dira, gaur egun eurentzat edo beren seme-alabentzat aukeratu behar izanez gero, unibertsitateko karrera ikastea nahiago luketenak (%46k)

**¿LA JUVENTUD ESTÁ SATISFECHA CON SU VIDA COTIDIANA?, ¿CUÁLES SON SUS PROBLEMAS?**

La juventud de la CAPV daba una puntuación de 6,8 sobre 10 a cómo le iban las cosas en el año 2004. Entre sus problemas personales destacan la vivienda (mencionada por un 41% de los y las jóvenes), seguida del paro (27%) y los problemas económicos y las desigualdades sociales (26%). Por detrás quedan el terrorismo y la violencia (12%), el conflicto y la situación política del País Vasco (10%), la educación (7%), la sanidad, el tráfico, el medio ambiente, el funcionamiento y la cobertura de los servicios públicos, problemas relacionados con la situación lingüística, problemas de la juventud (cada uno mencionado por un 3%), la delincuencia y la inseguridad ciudadana (2%), la inmigración (2%) y las drogas (1%).

**¿Y CUÁLES SON SUS PRINCIPALES REFERENTES SOCIALES?**

Los principales referentes de la juventud son personas dedicadas al deporte (20%), la música (18%) o el cine y la televisión (12%). Son menos quienes dicen admirar principalmente a personas dedicadas a la política (8%), a la literatura (3%), a la religión (1%), a actividades humanitarias o relacionadas con problemas sociales (1%), a la ciencia o medicina (1%) o a artes tales como la pintura, escultura, etc (1%).

**¿QUÉ OPINIONES TIENEN SOBRE LA EDUCACIÓN?**

La mayoría de los y las jóvenes de la CAPV consideran que la enseñanza obligatoria en el País Vasco es buena (65%, frente a un 4% que cree que es mala).

Los y las jóvenes creen que al acabar la enseñanza obligatoria, a los 16 años, cualquier joven debería saber hablar correctamente en castellano (98%), en euskera (93%), en inglés (80%) e incluso un 38% cree que debería saber hablar correctamente en otro idioma extranjero. Preguntados sobre la realidad, en cambio, los porcentajes disminuyen considerablemente: un 77% de las y los jóvenes creen que al acabar la enseñanza obligatoria los chicos y chicas son capaces de hablar correctamente en castellano, un 48% piensa que son capaces de hablar correctamente en euskera y tan sólo un 17% cree que las y los jóvenes son capaces de hablar bien en inglés.

El 67% de la juventud considera que la Formación Profesional ofertada a los y las jóvenes en el País Vasco es buena (frente a un 2% que cree que es mala y otro 19% que la tilda de regular), y un 72% considera que prepara a los y las jóvenes adecuadamente para incorporarse al mundo laboral. De hecho, un 60% considera que es más fácil encontrar trabajo estudiando un módulo de FP que estudiando una carrera universitaria, sin embargo son más quienes, de tener que elegir actualmente para sí mismos o para

LHren modulua egingo luketenak baino (%32k).

#### **NOLAKO JARRERAK DITUZTE KIROLAREKIKO?**

Gazteen erdiek (%53k) kirolzale handiak direla diote. Beste %29k apur bat kirolzaleak direla diote eta %17k ez direla batere kirolzaleak.

Gazteen %37k kirola gustukoa dutela eta nahikoa egiten dutela diote, %29k interesatzen zaiela baina ez dutela nahi duten beste egiten esan dute eta %19k kirolean interesatuta daudela, lehen egiten zutela baina orain ez dutela egiten adierazi dute. Nahikoa gutxiago dira ondokoak diotezenak: ez dutela kirolirik egiten ezta interesatu ere (%9), ez zaiela interesatzen baina behartuta egiten dutela (%3) edo inoiz ez dutela kirolirik egin baina gustatuko litzaiekela (%2).

Gazteen bi herenek (%64k) kirola (bat edo gehiago) egiten dutela diote. Gazteriak gehien egiten dituen kirolak ondokoak dira: futbola (kirolen bat egiten dutenen %24k futbola egiten dute), igeriketa (%23k) eta txirrindularitza (%23k). Atzetik datoz mantentze-gimnasia (%14k), areto-futbola, futbitoa edo futbol 7 (beste %14k), saskibaloia (%14k), jogginga (%13k), mendia (%12k), aerobica eta antzekoak (%12k), elur-kirolak (%8k), atletismoa (%8k), pilota (%7k), tenisa (%7k) eta ibiltzea (%6k). Kirola egiten dutenen %5ek baino gutxiagok egiten dituzte gainontzeko kirolak.

Kirola egiteko arrazoen artean, aipatuenak ondokoak dira: dakarren dibertsioa (kirola egiten dutenen %61ek aipatuta), ariketa fisikoa egiteko (%56k) eta kirola gustatzen zaielako (%43k). Nahikoa aipatu dira ere osasuna mantentzea eta/edo hobetzea (%33) eta lagunekin egotea (%27), eta gutxiago argal egotea (%13), ihes egitea (%9) edo lehiaketa gustukoa izatea (%5).

Kirola ez egiteko arrazoen artean, denbora falta (kirola egiten ez dutenen %58k esan dute hori) eta alferkeria (%45ek) dira aipatuenak. Gainera, %19k ez zaiela gustatzen diote, %15ek oso nekatuta irteten direla lanetik edo ikasketetatik, eta oso gutxi esan dute osasun arazoak dituztela (%3k), ez dutela kirol-instalaziorik gertu (%2k), ez dagoela kirol-instalazio egokirik (%2k) edo ez diotela onurarik edo probetxurik ikusten (%1ek).

#### **ETA IRAKURKETAREKIKO?**

Gazteen %49k irakurtzea asko edo nahikoa gustatzen zaiela diote, %29ri apur bat gustatzen zaie, eta %23ri gutxi gustatzen zaie edo ez dute batere gustuko. %54k egunero edo ia egunero bere denbora librearen zati bat irakurtzen ematen dutela diote, %20k astean bi edo hiru aldiz, %15ek noizean behin, %3k gutxitan eta %7k inoiz edo ia inoiz ez.

Gutxienez noizean behin irakurtzen dutenen %26k egunero edo ia egunero liburuak irakurtzen dituztela diote, %15ek astean hiru edo lau egunetan, %14k astean behin edo bitan, %20k gutxienez hilean behin, %10ek gutxiagotan eta %15ek inoiz edo ia inoiz ez.

sus hijos o hijas, preferirían estudiar una carrera universitaria (46%) que estudiar un módulo de FP (32%).

#### **¿QUÉ ACTITUDES MUESTRAN HACIA EL DEPORTE?**

La mitad de los y las jóvenes (53%) se declaran muy aficionados al deporte. Otro 29% dice ser un poco aficionado y un 17% nada aficionado.

El 37% de los y las jóvenes declara que le gusta el deporte y lo practica suficientemente, un 29% dice que le gusta el deporte pero no lo practica tanto como quisiera y un 19% señala que le interesa el deporte, lo ha practicado pero ya no lo practica. Son bastantes menos quienes dicen que ni lo practican ni les interesa (9%), que no les interesa pero lo practican por obligación (3%) o que nunca han practicado deporte pero les gustaría hacerlo (2%).

Dos tercios de los y las jóvenes (64%) dicen practicar algún deporte (uno o varios). Los deportes más practicados por la juventud son el fútbol (24% de quienes practican algún deporte), la natación (23%) y el ciclismo (23%). Les siguen la gimnasia de mantenimiento (14%), el fútbol sala, futbito o fútbol 7 (otro 14%), el baloncesto (14%), el jogging (13%), el montañismo (12%), el aeróbic y similares (12%), los deportes de nieve (8%), el atletismo (8%), la pelota (7%), el tenis (7%) y andar (6%). El resto de deportes son practicados por menos del 5% de quienes hacen deporte.

Entre los motivos para hacer deporte, los más mencionados son la diversión que conlleva (señalada por el 61% de quienes hacen deporte), hacer ejercicio físico (56%) y el gusto por el deporte (43%). También son bastante mencionados mantener y/o mejorar la salud (33%) y estar con los amigos y amigas (27%), y menos cuidar la línea (13%), evadirse (9%) o el gusto por la competición (5%).

Entre los motivos para no hacer deporte, destacan la falta de tiempo (señalada por el 58% de quienes no hacen deporte) y la pereza o desgana (45%). Además, un 19% dice que no le gusta, un 15% que sale muy cansado del centro de trabajo o estudios y son muy pocos quienes aducen problemas de salud (3%), falta de instalaciones deportivas cerca (2%), falta de instalaciones deportivas adecuadas (2%) o que no le ven beneficios o utilidad (1%).

#### **¿Y HACIA LA LECTURA?**

Un 49% de las y los jóvenes declara que le gusta mucho o bastante leer, a un 29% le gusta algo y a un 23% le gusta muy poco o nada. Un 54% señala que dedica algún rato de su tiempo libre a leer todos o casi todos los días, un 20% dos o tres veces por semana, un 15% de vez en cuando, un 3% raramente y un 7% nunca o casi nunca.

El 26% de quienes leen (al menos de vez en cuando) dice leer libros todos o casi todos los días, un 15% tres o cuatro veces por semana, un 14% una o dos veces por semana, otro 20% al menos una vez al mes, un 10% con menor frecuencia y un 15% nunca o

Gutxienez hilean behin liburuak irakurtzen dituztela dioten gazteak kontuan hartuta, %14k azken urtean 12 liburu baino gehiago irakurri zituztela esan dute, %17k 8-12 liburu irakurri zituzten, %36k 4-7 liburu eta %32k 1-3 liburu. %91k literatura eta entretenimenduzko liburuak (eleberriak, poesia,...) irakurtzen dituzte, %36k testu liburuak, %25ek kontsulta eta erreferentzia liburuak (entziklopediak, hiztegiak,...), %23k historia edo arte liburuak eta %21ek liburu profesionalak edo teknikoak. Gainera, liburu irakurle gazte horien %99k gaztelaniazko liburuak irakurtzen dituzte, %31k euskarazkoak eta %10ek beste hizkuntzetakoak.

Bestalde, gazte irakurleen artean (hau da, gutxienez noizean behin irakurtzen dutenen artean), %46k egunkariak egunero irakurtzen dituzte, %15ek astean hiru edo lau egunetan, %21ek astean behin edo bitan, %3k gutxienez hilean behin, %2k gutxiagotan eta %13k inoiz edo ia inoiz ez.

Egunkariak gutxienez astean behin irakurtzen dituztenak kontuan hartuta, %98k informazio orokorreko egunkariak irakurtzen dituzte, %37k kiroletakoak eta %6k ekonomikoak. Egunkariak irakurle gazte horien %99k gaztelaniazko egunkariak irakurtzen dituzte, %26k euskarazkoak eta %2k beste hizkuntzetakoak.

#### **NOLAKO JARRERA POLITIKOAK DITUZTE GAZTEEK?**

Gazteek duten politikarekiko interesa txikia da: %41ek ez daudela batere interesatuta diote, eta aldiz bakarrik %9k diote interes handia dutela. Gainera, %27k nolabaiteko interesa dutela esan dute eta %22k ez dutela interes handirik.

Politikak sortarazten dizkien sentimenduak ondokoak direla esan dute gazteek: batez ere, mesfidantza (%24k) eta interesa (%22k), eta horien ondoren axolagabetasuna (%17k), aspergarritasuna (%15ek), konpromisoa (%10ek), haserrea (%8k) eta bakarrik %1ek esan du irrika.

Lau gaztetatik hiruk uste dute politikariak ez direla jendeak pentsatzen duenaz kezkatzen (horrela uste dute %74k) eta boterean batzuk ala besteak egon, denek beti beren interes pertsonalak bilatzen dituztela (%73k); erdiek baino gehiagok uste dute jendeak gobernuak egiten dituen gauzetan eragina izan ahal izateko bide bakarra botoa dela (%57) eta normalean politika hain konplikatu denez jendeak gertatzen ari dena ezin izaten duela ulertu (%54).

Bakarrik hamar gaztetatik batek hitz egiten du askotan politikaz bere familiarekin edo lagunekin (%11k eta %10ek, hurrenez hurren). Eta %8k beren haurtzaroan edo nerabezaroan beren etxeetan askotan hitz egiten zela politikaz adierazi dute, erdia baino gehiago izanik (%56) beren etxeetan gutxitan edo inoiz ez zela politikaz hitz egiten diotenak.

Gazteen %12 oso edo nahikoa hurbil sentitzen dira alderdi politikoengandik, baina erdiek baino gehiagok (%55ek) ez direla batere hurbil sentitzen diote. Urruntasun hori

casi nunca.

Tomando en cuenta los y las jóvenes que dicen leer libros al menos una vez al mes, el 14% señala que en el último año leyó más de 12 libros, un 17% dice que leyó entre 8 y 12 libros, un 36% entre 4 y 7 libros y un 32% entre 1 y 3 libros. Un 91% lee obras de literatura y entretenimiento (novelas, poesía,...), un 36% libros de texto, un 25% lee obras de consulta y referencia (enciclopedias, diccionarios,...), un 23% libros de historia o arte y un 21% libros profesionales o técnicos. Además, el 99% de estos jóvenes lectores de libros los lee en castellano, el 31% en euskera y el 10% en otros idiomas.

Por otro lado, entre los y las jóvenes lectores (leen al menos de vez en cuando) un 46% lee el periódico todos los días, un 15% tres o cuatro veces por semana, un 21% una o dos veces por semana, un 3% al menos una vez al mes, un 2% con menor frecuencia y un 13% nunca o casi nunca.

Tomando en cuenta a quienes leen el periódico al menos una vez a la semana, el 98% lee periódicos de información general, un 37% lee periódicos deportivos y un 6% periódicos económicos. El 99% de estos jóvenes lectores de prensa lee periódicos en castellano, un 26% lee periódicos en euskera y un 2% periódicos en otros idiomas.

#### **¿QUÉ ACTITUDES POLÍTICAS TIENEN LOS Y LAS JÓVENES?**

El interés por la política de las y los jóvenes es escaso: un 41% afirma no estar nada interesado frente a un 9% que dice estar muy interesado. Además un 27% dice estar algo interesado y un 22% no muy interesado.

Los y las jóvenes dicen que los sentimientos que les inspira la política son, principalmente, la desconfianza (24%) y el interés (22%), seguidos de la indiferencia (17%), el aburrimiento (15%), el compromiso (10%), la irritación (8%) y únicamente un 1% señala el entusiasmo.

Tres de cada cuatro jóvenes creen que los políticos no se preocupan mucho de lo que piensa la gente (74%) y que, esté quien esté en el poder, siempre busca sus intereses personales (73%), y también son más de la mitad quienes piensan que el voto es la única forma que tiene la gente para influir en lo que hace el gobierno (57%) y que generalmente la política parece tan complicada que la gente no puede entender lo que pasa (54%).

Apenas uno de cada diez jóvenes habla habitualmente con su familia o con sus amistades sobre política (11% y 10%, respectivamente). Y un 8% señala que en su infancia o adolescencia en su casa se hablaba de política habitualmente, siendo más de la mitad (56%) quienes señalan que rara vez o nunca se hablaba de política en su hogar.

El 12% de los y las jóvenes se sienten muy o bastante próximos a algún partido político, pero más de la mitad (55%) dice sentirse nada próximo, lejanía que es más destacada en el caso de los y las adolescentes (entre quienes este porcentaje se eleva hasta

gehiago nabaritzen da nerabeen artean (horien artean ehunekoa %69ra igoten baita).

Izatez, gazteriak ez dio inolako alderdi politikori oniritzia eman. EAJ da puntuaziorik onena lortu duena (0 eta 10en arteko eskalan, 4,4). Ondoren EA eta EB daude (bakoitzak 4,0 lorturik). Eta atzetik daude Aralar (3,5), ezker abertzaleko beste talde batzuk (3,2), PSE-EE (3,2), PP (2,4) eta, azken tokian, UA (1,9).

Alderdi horien buruzagiek ere ez dute emaitza onik lortu: batek ere ez du oniritzia lortu eta hortik hurbilen dagoena Ibarretxe lehendakaria da (4,9 dauka 0 eta 10en arteko eskalan). Ondoren datoz EAJko Josu Jon Imaz (4,3), EAKo Begoña Errazti (4,0), EBko Javier Madrazo (4,0), Aralarreko Patxi Zabaleta (3,8), PSOEko Jose Luis Rodriguez Zapatero (3,8), IUko Gaspar Llamazares (3,5), Batasunako Arnaldo Otegi (3,3), PSE-EEko Patxi Lopez (3,2), PPko Maria San Gil (2,3) eta Mariano Rajoy (2,0) eta, azkenik, UAKo Enriqueta Benito (1,8).

Oro har, alderdi politikoen iritziak kontraesankorrak dira; alde batetik, gazteek uste dute alderdiak beharrezkoak direla talde eta klase ezberdinen interesak defendatzeko (%66 ados daude baieztapen horrekin), alderdiei esker jendeak bizitza politikoan parte hartu ahal duela (%57) eta alderdi politikorik gabe ezin dela demokraziarik egon (%55) eta, aldi berean, alderdiek ez dutela ezertarako balio dioen ideien kontra daude gazteak (%64 kontra), baina, beste aldetik, alderdiek elkar asko kritikatzeko badute ere, denak berdina direla uste dute gazteek (%58 bat datoz ideia horrekin).

Ideologikoki EAEko gazteek batez ere ezkerrekotzat jo dute beren burua (%50ek zentro-ezkerrekoak, ezkerrekoak edo ezker muturrekoak direla diote, eta aldiz bakarrik %14k diote zentrokoak direla eta %5ek eskuinekoak direla), baita batez ere euskal herritartzat ere (%54k bakarrik euskal herritarrak edo euskal herritarrak espainiarrak baino gehiago direla diote, eta aldiz %32k euskal herritarrak bezain espainiarrak direla esan dute eta %6k batez ere espainiarrak direla).

Gazteek lotura handiagoa dute Euskal Herriarekin (%93k lotura handia edo nahikoa lotura dutela adierazi dute) eta beren udalerriarekin (%91k), Espainiarekin (%45ek) edo Europarekin (%41ek) baino.

Gehiago dira Euskal Herriko independentziarekin ados daudenak (%32) kontra daudenak baino (%23); dena dela, gehiengo ez da alde batean edo bestean argi jarri (%33 ados edo kontra leudeke baldintzen arabera eta beste %12k ez dute iritzirik eman).

Albiste politikoen jarraipenari dagokionez, gazteek telebistaren bidez jarraitzea nahiago dute (%66k egunero egiten dute horrela, bestalde, egunkariaren bidez %32k jarraitzen dituzte eta irratiaren bidez %27k). Dena dela, konfiantzarik handiena ematen dien komunikabidea prentsa da (%43ri), ondoren irratiak dator (%39) eta azken tokian telebista dago (%34). Aipatzekoa da komunikabide batek ere ez duela lortu gazte gehienek konfiantza.

Bakarrik hiru erakundek lortu dute gazteen erdiak baino gehiagok haiengan konfiantza izatea: Gobernu Kanpoko Erakundeek (gazteen %68k daukate konfiantza horiengan),

el 69%).

De hecho, la juventud no aprueba a ningún partido político, siendo el PNV el que consigue la mejor puntuación (4,4 en una escala de 0 a 10), seguido de EA y EB (4,0 en ambos casos). Por detrás quedan Aralar (3,5), otros grupos de la izquierda abertzale (3,2), PSE-EE (3,2), PP (2,4) y, en último lugar, UA (1,9).

Sus líderes tampoco salen demasiado bien parados: nuevamente ninguno consigue el aprobado siendo el Lehendakari Ibarretxe el que más se acerca al mismo (4,9 en la escala de 0 a 10). Le siguen Josu Jon Imaz, del PNV (4,3), Begoña Errazti, de EA (4,0), Javier Madrazo, de EB (4,0), Patxi Zabaleta, de Aralar (3,8), Jose Luis Rodriguez Zapatero, del PSOE (3,8), Gaspar Llamazares, de IU (3,5), Arnaldo Otegi, de Batasuna (3,3), Patxi Lopez, del PSE-EE (3,2), Maria San Gil, del PP (2,3), Mariano Rajoy, del PP (2,0) y, finalmente, Enriqueta Benito, de UA (1,8).

En general, las opiniones sobre los partidos políticos son contradictorias; por un lado los y las jóvenes piensan que los partidos son necesarios para defender los intereses de los distintos grupos y clases sociales (el 66% está de acuerdo con esta afirmación), que gracias a los partidos la gente puede participar en la vida política (57%) y que sin partidos políticos no puede haber democracia (55%), al tiempo que se muestran en desacuerdo con la idea de que los partidos no sirven para nada (64% en desacuerdo); pero por otro lado, también piensan que los partidos se critican mucho entre sí pero en realidad son todos iguales (el 58% comparte esta idea).

Ideológicamente los y las jóvenes de la CAPV se consideran principalmente de izquierda (el 50% dice ser de centro-izquierda, izquierda o extrema izquierda, frente a un 14% que se considera de centro y un 5% de derecha) y predominantemente vascos (el 54% dice ser únicamente vasco o más vasco que español, frente a un 32% que dice ser tan vasco como español y un 6% que se siente predominantemente español).

La juventud siente mayor apego por el País Vasco (el 93% siente mucho o bastante apego) y por su municipio (91%), que por España (45%) o Europa (41%).

Son más quienes están de acuerdo (32%) que quienes están en desacuerdo (23%) con la independencia del País Vasco, si bien no hay un posicionamiento mayoritario en uno u otro sentido (otro 33% estaría o no de acuerdo según las circunstancias y otro 12% no emite ninguna opinión).

Los y las jóvenes prefieren seguir las noticias políticas a través de la televisión (un 66% lo hace a diario, mientras que a través de los periódicos lo hace un 32% y por la radio un 27%). Sin embargo, el medio que les merece mayor confianza es la prensa escrita (43%), seguido de la radio (39%) y en último término la televisión (34%). Hay que destacar que ningún medio consigue la confianza mayoritaria de los y las jóvenes.

Tan sólo tres instituciones consiguen ser objeto de confianza de más de la mitad de los y las jóvenes: las ONGs (68%), el Gobierno Vasco (59%) y el Parlamento Vasco (54%). Son menos quienes confían en los sindicatos (47%), en la UE (39%), en la ONU (35%), en las empresas (34%), en la justicia (34%), en los medios de comunicación (32%), en

Eusko Jauriaritzak (%59k) eta Eusko Legebiltzarrak (%54k). Gutxiago dira ondoko erakundeengan konfiantza dutenak: sindikatuengan (%47k), Europar Batasunarengan (%39k), Nazio Batuen Erakundearengan (%35ek), enpresengan (%34k), justiziarengan (%34k), komunikabideengan (%32k), Elizarengan (%20k), alderdi politikoengan (%15ek) eta armadarengan (%15ek).

#### **NOLA IKUSTEN DITUZTE GAZTEEK EUSKADIKO ETA ESTATUKO EGOERAK?**

0 eta 10en arteko eskalan, gazteek 6,0 eman diote Euskadiko egoera orokorrari eta 4,8 Estatukoari.

Zehatzago, Euskadiko egoera ekonomikoa ontzat jo da (%71k), baita soziala ere, baina ez aurrekoa bezain neurri handian (%64k jo dute ontzat), bestalde, egoera politikoa txartzat jo da (hori deritzote gazteen %50ek).

Estatuan egoera ekonomikoa eta sozialak ere balorazio negatiboak baino positibo gehiago lortu dituzte, baina, Euskadin ez bezala, egoera soziala ekonomikoa baino hobeto hauteman da (%53k eta %50ek, hurrenez hurren, ontzat jo dute). Egoera politikoak, berriz, nagusiki balorazio negatiboak jaso ditu (gazteen %51k txarra dela deritzote).

Bai esparru bakoitzeko egoera orokorra aztertzean, bai egoera zehatz bakoitza (hau da, politikoa, ekonomikoa eta soziala) ikustean, Euskadirekiko pertzepzioak Estatuarekikoak baino positiboagoak dira eta joera hori aztertutako talde gehienetan ikusi ahal da.

Bestalde, gazteak gehien bat ez daude pozik demokraziak Euskadin eta Estatuan duen funtzionamenduari (%50 eta %53, hurrenez hurren, ez daude pozik). Europako demokraziari dagokionez, gazteria antzeko pisuko hiru taldetan banatu da: pozik daudenak, pozik ez daudenak eta erantzun ez dutenak.

#### **POZIK AL DAUDE GAZTEAK ADMINISTRAZIO EZBERDINEKIN?**

Gazte gehienek esan dute pozik daudela euskal administrazioekin: %60 udalekin, %58 foru aldundiekin eta %58 Eusko Jauriaritzarekin. Estatuko gobernuarekiko pozik ez daudenak pozik daudenak baino gehiago dira (%56 ez daude pozik), eta erantzunik ez ematea pozik egotea edo ez egotea baino zabalduago dago Europako gobernuaz galdetu denean (%39k ez baitute erantzunik eman).

Administrazio guztiak gehien kritikatu dituztenak politikarekiko interes handikoak dira.

la Iglesia (20%), en los partidos políticos (15%) y en el ejército (15%).

#### **¿CÓMO VEN LAS Y LOS JÓVENES LA SITUACIÓN DE LA CAPV Y DEL ESTADO?**

En una escala de 0 a 10, los y las jóvenes otorgan un 6,0 a la situación general del País Vasco y un 4,8 a la situación en el Estado.

Más concretamente, en el País Vasco la situación económica es considerada buena (71%), la social también aunque no tanto como la anterior (64%), mientras que la situación política es catalogada de mala (así opina el 50% de los y las jóvenes).

En el Estado, también las situaciones económica y social reciben más valoraciones positivas que negativas, si bien, a diferencia del País Vasco, la situación social es algo mejor percibida que la económica (el 53% y 50%, respectivamente, consideran que son buenas). La situación política, en cambio, recibe principalmente valoraciones negativas (el 51% cree que es mala).

Tanto al estudiar la situación general en cada ámbito, como cada una de las situaciones específicas (política, económica y social), las percepciones que se tienen del País Vasco son más positivas que las que se tienen del Estado, tendencia extensible a la mayoría de los colectivos analizados.

Por otro lado, los y las jóvenes se muestran más bien insatisfechos con el funcionamiento de la democracia tanto en el País Vasco como en el Estado (50% y 53% de insatisfechos respectivamente). En cuanto a la democracia en Europa, la juventud se reparte por igual entre quienes están satisfechos, quienes están insatisfechos y quienes no responden.

#### **¿ESTÁN SATISFECHOS LOS Y LAS JÓVENES CON LAS DISTINTAS ADMINISTRACIONES?**

Los y las jóvenes se declaran mayoritariamente satisfechos con las administraciones vascas: ayuntamientos (60%), diputaciones (58%) y Gobierno Vasco (58%). La insatisfacción es superior a la satisfacción en relación al Gobierno del Estado (56% de insatisfechos), mientras que la no respuesta supera a la satisfacción o insatisfacción al hacer referencia al Gobierno europeo (39% de no respuesta).

Las mayores críticas a todas las administraciones proceden de quienes muestran mucho interés en la política.

## **29 urtetik gorakoekin alderatuz / Respecto a los mayores de 29 años**

Gazteek helduek baino gehiago aipatu dituzte etxebizitzaren garestitasuna, langabezia eta hezkuntza beren arazo pertsonalak aipatzeko eskatu zaienean.

Los y las jóvenes señalan en mayor medida que los y las mayores la carestía de la vivienda, el paro y la educación como sus principales problemas personales.

Gazteek gehien miresten dituzten pertsonak kirolariak, musikariak eta zinean edo telebistan arituak badira, helduentzat miresgarrienak politikariak dira.

Gazteek 29 urtetik gorakoek baino hobeto baloratu dute Euskadin eskainitako Lanbide Heziketa eta horrek lan munduan sartzeko eskaintzen duen prestakuntza; dena dela, konfiantza handiagoa dute unibertsitateko karrera ikasita lana aurkitzeko aukeretan ere. Hizkuntzen ezagutzari dagokionez, gazteek helduek baino neurri txikiagoan deritzote derrigorrezko hezkuntza bukatzean gazteak euskaraz zuzen hitz egiteko gai direla.

Kirolzaletasuna, baita kirolaren praktika ere, handiagoak dira gazteen artean 29 urtetik gorakoek artean baino. Izatez, gazteen artean helduen artean baino gehiago dira kirola interesatzen zaiela eta nahikoa egiten dutela diotenak. Oro har, gazteek helduek baino gehiago egiten dituzte kirol guztiak, ibiltzea eta mendira joatea izan ezik. Kirola egiterakoan, gazteek helduek baino gehiago adierazi dute ondo pasatzeko, gustukoa dutelako edo lagunekin egoteko egiten dutela; helduek gazteek baino gehiago aipatu dute osasuna mantendu eta/edo hobetzeko egiten dutela. Kirolik egiten ez dutenen artean gazteek 30 urte beteta dituztenek baino gehiago aipatu dute astirik eza, alferkeria edo oso nekatuta irtezen direla lanetik edo ikasketetatik eta ia ez dute aipatu adina edo osasunaren moduko aitzakiarik; azken horiek nahikoa aipatu dira helduen artean.

Nahiz eta irakurketarekiko zaletasun maila antzekoa izan, gazteek 29 urtetik gorakoek baino denbora libre gutxiago ematen dute irakurtzen; 30 urte eta gehiagokoek baino liburu gehiago irakurtzen badituzte ere, egunkariak gutxiago irakurtzen dituzte eta.

Liburuak gutxienez hilean behin irakurtzen dituztela diotenak kontuan hartuta, ikus dezakegu gazteek azken urtean helduek baino liburu gutxiago irakurri dituztela, historia eta arte liburu gutxiago irakurtzen dituztela baina testu liburu gehiago, baita euskarazko eta atzerriko hizkuntzetako liburu gehiago irakurtzen dituztela ere.

Egunkariak gutxienez astean behin irakurtzen dituztenak kontuan hartuta, ikus dezakegu gazteek helduek baino kiroletako egunkari gehiago eta ekonomiazko egunkari gutxiago irakurtzen dituztela, baita euskarazko prentsa gehiago irakurtzen dutela ere.

Etxean izandako sozializazio politikoa zertxobait handiagoa da gazteen artean helduen artean baino, horrela lehenengoen artean gutxiago dira beren haurtzaroan edo nerabezaroan beren etxeetan ez zela inoiz politikaz hitz egiten diotenak. Gazteen artean helduen artean baino gehiago dira beren burua ezkertiarzat dutenak baita euskal herritartzat dutenak ere. Independentziaren aldekoago agertu da gazteria eta, aldi berean, Espainiaren eta Europaren lotura txikiagoa azaldu du.

Gazteek nagusiek baino neurri txikiagoan uste dute botoa dela jendeak gobernua egiten duenean eragin ahal izateko bide bakarra. Gazteak helduak baino urrutiago sentitzen dira alderdi politikoetatik eta haiek baino neurri txikiagoan datoz bat alderdiekiko ideia positiboekin: beharrezkoak direla talde eta klase ezberdinen interesak defendatzeko, alderdiei esker jendeak politikan parte hartu ahal duela, eta alderdirik

Mientras que para los y las jóvenes sus principales referentes sociales son personas dedicadas al deporte, la música y el cine y la televisión, entre los y las mayores los más admirados son los políticos.

Los y las jóvenes valoran algo mejor que quienes superan los 29 años la Formación Profesional ofertada en el País Vasco y la preparación que ofrece para incorporarse al mundo laboral; si bien también confían algo más en las posibilidades de encontrar trabajo estudiando una carrera universitaria. En cuanto al conocimiento de idiomas, son menos las y los jóvenes que las y los mayores que señalan que al acabar la enseñanza obligatoria la juventud es capaz de hablar correctamente en euskera.

La afición al deporte es mayor entre los y las jóvenes que entre los y las mayores de 29 años, al igual que la práctica deportiva. De hecho, entre la juventud es superior el porcentaje de quienes señalan que les interesa el deporte y lo practican suficientemente. En general, todos los deportes son más practicados por jóvenes que por mayores, a excepción de andar y hacer montañismo o senderismo. A la hora de hacer deporte, la juventud señala más que sus mayores razones como la diversión, que les gusta o que así están con los amigos y amigas, mientras que los y las mayores mencionan en mayor medida que ello les sirve para mantener y/o mejorar la salud. Entre quienes no hacen deporte, los y las jóvenes aducen más que quienes ya han cumplido los 30 razones de falta de tiempo, pereza y desgana o el cansancio al salir del trabajo o estudios y apenas señalan motivos como la edad o la salud, que sí son bastante mencionadas por los y las mayores.

Aunque el nivel de afición a la lectura es similar, las y los jóvenes dedican menos tiempo libre a la lectura que los y las mayores de 29 años y es que, si bien leen libros algo más frecuentemente que los y las de 30 y más años, son lectores menos habituales de los periódicos.

Tomando en cuenta a quienes dicen leer libros al menos una vez al mes, observamos que los y las jóvenes han leído menos libros que las y los mayores en el último año, leen menos libros de historia y arte pero más libros de texto, y también leen más libros en euskera y en idiomas extranjeros.

Tomando en cuenta a quienes leen el periódico al menos una vez a la semana, vemos que las y los jóvenes leen más periódicos deportivos y menos periódicos económicos que las y los mayores y también leen más prensa en euskera.

La socialización política en el hogar es algo mayor entre los y las jóvenes que entre los y las mayores, de modo que entre las y los primeros son menos quienes señalan que en su infancia o adolescencia nunca se hablaba de política en su casa. La juventud se considera algo más de izquierda y con mayor sentimiento vasco que el colectivo más maduro, también se muestra algo más favorable a la independencia al tiempo que sienten menor apego hacia España y Europa.

Los y las jóvenes comparten en menor medida que los y las mayores la idea de que el voto es la única forma en que la gente puede influir en lo que hace el gobierno y tam-

gabe ez dagoela demokraziarik. Gazteek nagusiek baino txartoago baloratu dute EAJ, PSE-EE eta PP baina hobeto gainontzeko alderdiak. Gazteen artean helduen artean baino puntuazio altuagoa lortu duen buruzagi bakarra Arnaldo Otegi izan da; gainontzeko buruzagiek antzeko puntuazioak edo puntuazio baxuagoak lortu dituzte gazteengandik.

Gazteek gutxiago jarraitzen dituzte albiste politikoak komunikabideetan eta nagusiek baino konfiantza txikiagoa dute irratiarengan eta telebistarengan; prentsaarengan jarritako konfiantza, aldiz, antzekoa da. Erakundeengan duten konfiantza ere txikiagoa da gazteen artean, Gobernu Kanpoko Erakundeengan eta sindikatuengan izan ezik, horiengan nagusiek baino konfiantza handiagoa jarri baitute.

Gazteek helduek baino apur bat hobeto baloratu dute egoera politikoa, ekonomikoa eta soziala, bai Euskadin, bai Estatuan. Gazteria ez da gainontzeko populazioa bezain kritikoa demokraziak Euskadin eta European duen funtzionamenduarekin. Dena dela, gazteek helduek baino poztasun txikiagoa adierazi dute administrazio guztiekiko (udalak, foru aldundiak, Eusko Jaurlaritza, Estatuko gobernua eta Europako gobernua).

bién se sienten menos cercanos a los partidos políticos y comparten en menor medida las ideas positivas sobre ellos: que son necesarios para defender los intereses de los distintos grupos y clases sociales, que gracias a los partidos la gente puede participar en política y que sin partidos no hay democracia. Los y las jóvenes valoran peor que los y las mayores a PNV, PSE-EE y PP pero mejor al resto de partidos. El único líder político mejor valorado por los y las jóvenes que por los y las mayores es Arnaldo Otegi; el resto obtiene puntuaciones similares o inferiores.

Los y las jóvenes realizan un menor seguimiento de las noticias políticas en los medios de comunicación y confían menos que los y las mayores en la radio y en la televisión, mientras que la confianza en la prensa es similar. La confianza en las instituciones también es inferior entre los y las jóvenes, excepto en relación a las ONGs y a los sindicatos, en los que confían más que los y las mayores.

Los y las jóvenes valoran algo mejor que los y las mayores la situación política, económica y social, tanto en el País Vasco como en el Estado. La juventud también es algo menos crítica que el resto de la población con el funcionamiento de la democracia en el País Vasco y en Europa. Sin embargo, los y las jóvenes se muestran algo menos satisfechos que sus mayores con todas las instancias administrativas (ayuntamientos, diputaciones, Gobierno Vasco, Gobierno del Estado y Gobierno europeo).

### **Aurreko neurketekin alderatuz / *Respecto a periodos anteriores***

Gazteek aurreko urteen antzera baloratu dute beren egoera pertsonala, dena dela, euren arazo pertsonalen artean etxebizitzarena lehenengo tokian kokatu da, langabeziaren aurretik.

Politikarekiko interesak aurreko urteetako mailan jarraitzen du, baita alderdiekiko hurbiltasunak ere. Alderdien balorazioek ez dute oniritzia lortu baina seriearen maila altuenetan kokatu dira, Ezker Batuaren kasuan, zehatzago, lehenago lortutako puntuazioak baino hobekak lortu ditu 2004an. Buruzagi politikoez ere hobetu egin dituzte orain arte lortutako emaitzak, Arnaldo Otegi izan ezik, berak 1998-1999 eta 1999-2000 urteetan (ETAren su-etenen garaian) lortu baitzituen bere kalifikaziorik onenak.

Ardatz ideologikoaren ezkerrean kokatzen diren gazteen ehunekoa gehitu da aurreko urteetatik hona eta 1996ko, seriearen hasierako, mailetara itzuli da berriro. Beren burua batez ere euskal herritartzat jotzen dutenen ehunekoa, berriz, ia ez da aldatu aurreko urteekin konparatuz.

Euskal Herriarekiko lotura maila ez da handitu baina bai independentziaren aldeko jarrera (hori, 2000-2002 urteetan izandako jaitzieraren ondoren, berriro igo da 1998 eta 1999ko mailetara). Espainiarekiko eta, are gehiago, Europarekiko lotura mailak txikitu dira 2001etik 2004ra.

Irratiarengan jarritako konfiantza nabarmen eskastu da 1998-1999tik denboralditik hona. 1999-2000 urteekin konparatuz gero, ikus dezakegu nola eskastu den ondoko

Los y las jóvenes valoran de forma similar a los años anteriores su situación personal, si bien entre sus problemas personales la vivienda ha pasado a ocupar el primer lugar, por delante del paro.

